



## **IRAGARKIA**

Alkateak 2024ko uztailaren 24an emandako dekretu baten Bergarako Udaleko Euskara Zerbitzuak kudeatutako programen konturako zenbait dirulaguntza arautzen dituen arautegiari jarraituz, 2024an dirulaguntzak banatzeko deialdia onartu da eta honen bidez argitaratzen da:

**Bergarako udaleko Euskara Zerbitzuak kudeatutako programen konturako zenbait dirulaguntza arautzen dituen Arautegiari jarraituz, 2024an dirulaguntzak banatzeko deialdia**

### **Dirulaguntza-lerroak**

*Bi lerro daude:*

- Bergarako Udal Euskaltegitik kanpo euskara ikasten dutenentzako dirulaguntzak
- Udako Euskal Unibertsitatearen ikastaroetan parte hartzeko dirulaguntzak.

### **Bergarako Udal Euskaltegitik kanpo euskara ikasten dutenentzako dirulaguntzak**

*Xedea:*

Bergarako Udal Euskaltegitik kanpo euskara ikasten duten Bergarako bizilagunei dirulaguntzak ematea, euskara ikasteko ikastaroetan parte hartzea bultzatzeko helburuarekin.

*Zuzkidura ekonomikoa eta diru-laguntzaren zenbatekoa.*

- Aurrekontu-zuzkidura: 3.000 euro.
- Aurrekontu aplikazioa: 3350.480.335.20.01. Barne-kodea: 464
- Dirulaguntzaren zenbatekoa: Dirulaguntzaren guztizko zenbatekoa onuradunen artean hainbanatuko da, Arautegian ezarritako moduan.

*Onuradunak eta betekizunak.*

Dirulaguntza eskuratu nahi duen bizilagunak ondorengo baldintzak bete beharko ditu:

- Bergaran erroldatuta egotea eskaera aurkeztu baino 2 hilabete lehenagotik.
- Aurreko urteko irailetik laguntza ematen den urteko abuzturako tartean euskara ikastaro batean parte hartzea, Udal Euskaltegitik kanpo.
- Azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 13. artikuluko 2. eta 3. zatiek adierazitako kausaren baten pean ez egotea.
- Egunean egotea betebeharrak fiskaletan eta Gizarte Segurantzakoetan eta baita Udalarekin ere.
- Laguntza jasotzeko gutxienez honako asistentzia izan dela egiaztatzea: %90ekoa barru-ikastaroen kasuan eta %85ekoa gainontzekoetan.

*Eskaerak aurkezteko epea eta modua.*



Eskaerak aurkezteko epea deialdia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik 2024ko irailaren 15era artekoa da.

Eskaerak aurkeztuko dira Bergarako udalaren aurrean B@Z Bergararren Arreta Zerbitzuaren bitartez, Udal Egoitza Elektronikoa edo 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan aurreikusitako beste edozein eratan.

### **Udako Euskal Unibertsitatearen ikastaroetan parte hartzeko diru-laguntzak**

*Xedea:*

Udako Euskal Unibertsitateak (UEUK) antolatutako ikastaroetan parte hartzen duten Bergarako bizilagunei dirulaguntzak ematea, ikastaroetan parte hartzea bultzatzeko helburuarekin.

*Zuzkidura ekonomikoa eta diru-laguntzaren zenbatekoa.*

- Aurrekontu-zuzkidura: 400 euro.
- Aurrekontu aplikazioa: 3350.480.335.20.01. Barne-kodea: 464
- Dirulaguntzaren zenbatekoa: Dirulaguntzaren guztizko zenbatekoa onuraduren artean hainbanatuko da, Arautegian ezarritako moduan.

*Onuradunak eta betekizunak.*

Dirulaguntza eskuratu nahi duen bizilagunak ondorengo baldintzak bete beharko ditu:

- Bergaran errolatuta egotea ikastaroa hasi baino 12 hilabete lehenagotik.
- Azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 13. artikuluko 2. eta 3. zatiek adierazitako kausaren baten pean ez egotea.
- Egunean egotea betebeharriskaletan eta Gizarte Segurantzakoetan eta baita Udalarekin ere.

*Eskaerak aurkezteko epea eta modua.*

Eskaerak aurkezteko epea deialdia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik 2024ko irailaren 15era artekoa da.

Eskaerak aurkeztuko dira Bergarako udalaren aurrean B@Z Bergararren Arreta Zerbitzuaren bitartez, Udal Egoitza Elektronikoa edo 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan aurreikusitako beste edozein eratan.

Bergara, 2024ko abuztuaren 2a

Behin-behineko Alkateak